

## BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

### 3159

*AGINDUA, 2022ko ekainaren 28koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailbururena, 2022. urtean goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzen ebazpen-proposamen bat eman eta organo honi aurkeztuko dion balorazio-batzordearen bokalak izendatzen dituen, eta batzorde horren osaeraren berri ematen duena.*

Ikusirik 2022. urtean egingo diren edo hasiko diren goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzen deialdia arautzen duen 2022ko maiatzaren 25eko Agindua, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailbururena.

Kontuan izanda aipatutako aginduaren 10. artikulua, alde batetik, aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta organo honi aurkeztuko dion ebazpen-proposamen arrazoitu bat emateko balorazio-batzorde bat osatuko dela adierazten duela; eta bestetik, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela batzordekide gisa eta aipatutako batzordearen osaera argitara eman behar dela esaten duela.

Horiek horrela, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balorazio-batzordearen bokalak izendatzea eta batzorde horren osaeraren berri ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Jon Redondo Lertxundi (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria).

Bokalak:

- Elisabet Altube Bengoa (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoaren Arloko arduraduna).
- Yeray Marín María (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako teknikaria), batzordeko idazkari modura jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 28a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.